


Urruñako emakumeak, matxino eta biktima



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Urruña, 1750eko martxoaren 1a. Herriko hainbat emakumek kaleak hartu zituzten Frantziako Gobernuak ezarritako tabakoaren gaineko zergaren aurka protesta egiteko. Gobernuak matxinada itzaltzeko armada bidaltzea erabaki zuen, zehazki, Arloneko destakamentu bat. Militarrek tiroz erantzun zieten emakumeen protestei eta, ondorioz, lau pertsona hil ziren: Gratianne Suhibar, Marie Dithurbide, Agustina Irigoity eta Jan Lapis. Azken hori, Bixitalako jauna, emakumez jantzita ari omen zen protestan, edo hori zabaldu zuten behintzat bere izena laidozteko.

Gertakizun honen berri Xose Estevez historialariak jaso zuen *Matxinadas en Euskal Herria* (Nabarralde) lanean, eta hor nabarmen ikusten da Urruñakoa ez zela kasu isolatua izan.

Espanian eta Frantzia XVIII. mendeko urteak, hau da, Antzinako Erregimenaren azken hatsak, nahasiak eta gatazkatsua izan ziren. Euskal Herriko egoera egonkorragoa zen itxuraz, besteak beste, tradizio paktista eta kaparetasun unibertsala medio. Baina horren atzean, euskal gizartea geroz eta polarizatuagoa zegoen, klase sozial ertainik gabe, gehiengo txiroak gora egiteko aukerarik ez zuelako. Estevezen esanetan, "egoera estrukturala pil-pilean zegoela, detonatzaile txikiena nahikoa zen matxinadak eztanda egiteko". Eta piztaile horiek, Urruñan bezala, gabelak izaten



FRANTZIAKO LIBURUTEGI NAZIONALA

Urruñako 1750eko protestaldian emakumeak izan ziren protagonista, Ipar Euskal Herriko XVIII. mendeko matxinada gehienetan bezala.

ziren maiz, hots, gatzaren, tabakoaren eta bestelako oinarritzko kontsumogaien zeharkako zerga: zerga-biltzaileentzat kobratzen erraza, zergadun pobreei egiten zien kalte nagusiki.

XVIII. mendearen hasieran, Frantziako nahiz Espainiako koroen ahalegin zentralizatzaileak egoerak okerrera egitea eragin zuen. Hegoaldean, 1718an aduanen matxinada piztu zen, Borboiek aduanasistema erreformatzea erabaki zutenean. Iparraldean, aldiz, bereziki Lapurdiko kostaldean, urtebete lehenago iritsi zen arazoa; Utrechtoko Itunaren (1717) ondorioz, Lapurdiko portuek eragina gal-

du zuten eta inguruko sektore nagusiak, arrantzak, gainbehera egin zuen.

Garai hartako Lapurdiko matxinadetan emakumeek izan zuten protagonismoa arrantzarekin lotzen du Xose Estevezek, gizonak itsasoan zeuden bitartean emakumeak lehorrean geratzen baitziren. Baina barrualdeko zenbait kasutan ere emakumeak izan ziren altxatu zirenak: Gasteizen 1738an edo Hazparden 1784an.

Baina, Estevezen ustez, ez da ahaztu behar emakumeak ez zirela soilik gatazken protagonista aktiboak izan. Biktima ere izan ziren, Donostian 1813an, esaterako, edo Urruñan, duela 275 urte. ●

Brasilgo inauteriak bertakoak dira

Brasilgo inauteri ezagunen jatorria aztertu dute Bartzelonako, Yorkeko eta Pelotaseko unibertsitateetako adituek. Orain arte uste zen inauterietako ospakizunak europarrek eraman zituztela, eta esklabo afrikarren ohiturekin nahastuta taxutu zirela. Baina *Plos One* aldizkarian argitaratutako ikerlanaren arabera, festaren oinarria Brasilen ber-

tan topatu dute. Lagoa dos Patos inguruko muinoetan duela 2.300-1.200 urteko zeramika zatiak topatu dituzte, hainbat arrain errezeta arrastoekin eta tuberkuluz, artoz eta palmaz egindako edari alkoholikoekin zantzuekin. Muino horietan egiten zituzten arrain eta alkohol festak egungo inauterien jatorria liriateke, teoria berriaren arabera. ●



RAMON MOREIRA / BOOKERS INTERNATIONAL